



Mina egiten du, min bizia, gaixotasunak bezala. Hormigoizko azal zahar herdoildu erraldoiak, denborak ez aurrera ez atzera egingo balu bezala zutik dirau, inguruko amildegietatik era basatian moztu zuten lurrarekin egindako losaren gainean. Amaierarik gabeko hiletan da. Zizareek, oraindik lurperatu ez den gorpua inpazientziak jango balute bezala ageri da hildakoaren eskeleto zulatua. Beldurgarria eta tristea, katastrofe baten ondorioz abandonatutako herri bat bezala. Itsasoaren eta luraren arteko eremu natural mugatu honetan, paisaia bortitza mantentzen da denbora pasatu ahala, hotza, iluna eta hunkigarria. Basordako kalak harmonia hautsia dauka, galdu ditu bere oinarriko proportzio naturalak eta horren ordeztu bere hazkuntza-legeen formekin zerikusirik ez duten eskalaz kanpoko bolumenak ezarri zaizkio. Tentsioa nabari da airean.

Natura, berea izan zena berreskuratzen saiatzen da, baina kalak aldaketa gogorregia jasan du. Itsasoak ezin du mugatzen duen 4 m-ko horma sendoa gainditu eta landaretzak, heziak zeharkatzen dituen arren, hormigoi  $m^3$  gehiegi ditu aurrean. Eraikina bera, aspalditik ez dago eroso. Inoiz funtzionamenduan jarri ez den Zentral Nuklearrari, azal azpiko instalazioak beste zentral baterako atera ondoren, barren huts zulatua besterik ez zaio geratzen. Badaki herriaren borondatearen kontra bertan inposatua izan zela, bertakoek ez dutela inoiz maitatu izan eta lekuko aisialdiko dinamika eta izaera natural, lasai eta osasuntsuarekin amaitu zuela. Baina dagoeneko Lemoizko Zentral Nuklearra izatera ailegatu ez zen hori, Basordako historiaren parte garrantzitsua bilakatu da. [Itsasoak, lurrak, eraikinak eta izakiak berak berradiskidetze beharra dute, baina nola?](#)

Kaos-aren teoriaren arabera, [orekan dagoen gorputz bat kanpo-eragile baten ondorioz desorekan jartzen denean, era espontaneo batean oreka-egoerarantz eboluzionatuko du.](#) Baina bi era daude eboluzio horri aurre egiteko eta hori da erabaki beharko dena: bata hasierako orekara bueltatzea, eta bestea egitura konplexuagoa lukeen oreka lortzea. Lehenengo kasuan, bertako historia ahaztu eta suntsitua izan zena imitatzen saiatzea izango litzateke, begiak itxi eta ezer gertatu ez balitz bezala jokatu. Bigarrenean, orde, lurrak eta itsasoak beren lekua berreskuratuko lukete, baina iraganarekin elkarrekin biziz eta denboraren orbainak onartuz. Memoria historikoa errespetatuko litzateke Basordako antzinako izaerarekin batera. Hiru hamarkadetako elkarbizitza ezatseginaren ondoren, elkarriketa eta adiskidetzearen besarkada azkenik. Herri-mugimenduaren ikonoa eta inposizioaren sinboloa izan den eraikinaren atal esanguratsuen, berrerrabiliko litzateke. Eta inguruko lur eta urek osasunarentzat onuragarria zen izaera

berreskuratuko lukete, losaren lur-birmugimenduen bidezko paisaia berriaren bidez.

Eraikinaren erabilera ezingo litzateke inolaz ere berriro zentrala izan. Elkar ukitzen baina nahasten ez diren ur eta lurrun-fluxu bero eta hotzen arteko dantza ederraren bidez, zentral nuklear baten energia lortzeko filosofia ideala dirudi. Ikatzarekin baino 1.000.000 aldiz energia gehiago lortu daiteke, anhidrido karbonikoko kutsadura gutxiago emitituz. Baina erradiaktibitatea ez da bizitzarekin bateragarria eta erakargarritasun horren atzean heriotza dago. Erreaktorearen barnean kaltegabea den uranioari neutroiak jaurtitzean, honen atomoak apurtu egiten dira neutroi berriak askatuz eta materiaren zati bat energia bilakatuz. Askatutako neutroiek uranio atomo berriak puskatu eta etengabeko erreakzio-katea sortzen dute. Kontrolatu ezean, bomba atomiko bat dugu esku artean. Istripu bat gertatuz gero, Euskal Herri osoaren amaiera litzateke eta hori gertatu gabe ere, kutsadura erradiaktiboak eta termikoak osasunaren eta lurren balioaren galera ekarriko lukete. Erradiaktibitatea ez baita ikusten ezta usaintzen ere, baina existitzen da, dirua ematen baitu. Manipulatutako uranioak 100.000 urtetan zehar mantentzen du erradiaktibitatea eta, behin erabilia, lur azpian edo itsasoan gordetzeak ondorio larriak ekarriko litzuzke. Ordaintzeko prezio altuegia. Honek energia nuklearra etikoki baztergarria egiten du, beraz *Zentral Nuklearrik ez, eskerrik asko.*

Erregai fosilen aroaren amaiera honetan, Ziklo Konbinatuzko Zentrala edo Zentral Termikoa ere ez lirateke onargarriak izango. Giza garapenerako eta bizi-kaliterako energia behar badugu, energia-politika aldatu beharko da garapen jasangarriaren alde. Jada energia-krisian gaude murgilduta, berandu da eta soilik norabide egokian korrika egitea geratzen zaigu. Amaigabeak diren eguzki-argia, haizea eta olatuak erabiltzea daukagu eta ondare publikoa diren heinean, gizarte osoaren beharrak ziurtatzeko izan beharko dira.

Basordari errespetua zor bazaio, berreskurapenaren bidean, historikoki toki hau izan zen bezala, eraikina ere osasunarentzat onuragarria izan beharko da. Itsasertzean igeri egin, arroketan jolastu eta olatuen laztanarekin erlaxatzea posible izango den ingurua. [Gizartearen parte-hartzeak zehatu beharko du zein izango den bertako dinamika, eta iraganak, orainak eta geroak bat eginik, Lemoizen harmonia berreskuratuko da elkarbizitza-abentura berri honetan.](#)



° Izaskun Urkijo arkitektura fraktala eta parametrikoko ikerlaria da. Irudia: Izaskun Urkijo